


Heriotzek % 3,6 egin dute behera 2023ko lehen hiruhilekoan Euskal AEn

COVID-19aren ondoriozko heriotza kopurua % 90,5 jaitsi da, eta lehen hiruhileko honetan baliorik baxuena lortu da, 74 heriotza

2023ko lehen hiruhilekoan, Euskadiko AEn 6.207 heriotza izan dira, aurreko urteko aldi berean baino % 3,6 gutxiago, Eustaten datuen arabera. Datuak aurreko urtekoekin erkatzen baditugu ikusten dugu 2023ko lehen hiruhileko honetan heriotza kopurua 2022koa (6.439) baino baxuagoa izan dela, bai eta 2020koa (6.522) baino baxuagoa ere, baina 2021ekoa (5.994), 2019koa (6.011) eta 2010-2019 aldiko batez bestekoa (5.813) baino handiagoa.

Euskal AEko egoiliarren heriotzak, hilabeteka



Iturria: Eustat. Heriotzen estatistika

Heriotza kopuruak behera egin du hiru lurralde historikoetan, eta Bizkaia nabarmentzen da; izan ere, bertan, jaitsiera % 4,8koa izan da (3.281 hildako). Araban 800 hildako izan dira, eta jaitsiera % 3,8koa, eta, Gipuzkoan, 2.126 hildako eta % 1,6ko jaitsiera. Sexuen arabera, 3.170 emakume eta 3.037 gizon hil dira; alegia, % 3,4ko jaitsiera izan da emakumeetan eta % 3,9koa gizonetan.

Lehen hiruhileko honetan izan diren heriotzen artean, 8 urtebetetik beherakoak izan dira (% 0,1) eta 113, ehun urtetik gorakoak (% 1,8). Gainera, hildakoen % 64,9k 80 eta 99 urte bitartean izan dituzte.

Heriotzak bizilekuaren lurraldearen, betetako adinaren, sexuaren eta heriotza-hilabetearen arabera (1). 2023/I

	2023/I		2022/IV		2022/I		2022/I	
	KOP	%	KOP	%	Gehikuntza (%)	KOP	%	Gehikuntza (%)
HERIOTZAK	6.207	100,0	5.930	100,0	4,7	6.439	100,0	-3,6
Egoitza duen lurraldea								
Araba / Álava	800	12,9	786	13,3	1,8	832	12,9	-3,8
Bizkaia	3.281	52,9	3.211	54,1	2,2	3.447	53,5	-4,8
Gipuzkoa	2.126	34,3	1.933	32,6	10,0	2.160	33,5	-1,6
Adina								
1 urtetik beherakoak	8	0,1	11	0,2	-27,3	11	0,2	-27,3
1-19 urte	9	0,1	8	0,1	12,5	8	0,1	12,5
20-39 urte	35	0,6	38	0,6	-7,9	53	0,8	-34,0
40-59 urte	333	5,4	389	6,6	-14,4	399	6,2	-16,5
60-79 urte	1.683	27,1	1.618	27,3	4,0	1.828	28,4	-7,9
80-99 urte	4.026	64,9	3.772	63,6	6,7	4.028	62,6	0,0
100 urte edo gehiago	113	1,8	94	1,6	20,2	112	1,7	0,9
Gizonak	3.037	100,0	2.923	100,0	3,9	3.159	100,0	-3,9
1 urtetik beherakoak	5	0,2	8	0,3	-37,5	7	0,2	-28,6
1-19 urte	4	0,1	6	0,2	-33,3	4	0,1	0,0
20-39 urte	22	0,7	23	0,8	-4,3	24	0,8	-8,3
40-59 urte	221	7,3	255	8,7	-13,3	246	7,8	-10,2
60-79 urte	1.067	35,1	1.044	35,7	2,2	1.154	36,5	-7,5
80-99 urte	1.703	56,1	1.582	54,1	7,6	1.711	54,2	-0,5
100 urte edo gehiago	15	0,5	5	0,2	200,0	13	0,4	15,4
Emakumeak	3.170	100,0	3.007	100,0	5,4	3.280	100,0	-3,4
1 urtetik beherakoak	3	0,1	3	0,1	0,0	4	0,1	-25,0
1-19 urte	5	0,2	2	0,1	150,0	4	0,1	25,0
20-39 urte	13	0,4	15	0,5	-13,3	29	0,9	-55,2
40-59 urte	112	3,5	134	4,5	-16,4	153	4,7	-26,8
60-79 urte	616	19,4	574	19,1	7,3	674	20,5	-8,6
80-99 urte	2.323	73,3	2.190	72,8	6,1	2.317	70,6	0,3
100 urte edo gehiago	98	3,1	89	3,0	10,1	99	3,0	-1,0
HERIOTZA-HILABETEA								
Urtarrila	2.177	35,1			2.394	37,2		-9,1
Otsaila	1.935	31,2			2.032	31,6		-4,8
Marxioa	2.095	33,8			2.013	31,3		4,1

Data 2023ko Irailaren 18a

Iturria: Eustat. Heriotzen Estatistika

Heriotza-kausa nagusiak tumoreak eta zirkulazio-sistemako gaixotasunak izan dira; 1.621 eta 1.594 heriotza, hurrenez hurren. Alegia, bi horiek heriotzen % 51,8 izan dira. Heriotzaren hirugarren kausa nagusia arnas sistemaren ondoriozkoa izan da; 543 kasu izan dira (% 8,7). Nerbio-sistemaren kausengatiko heriotzak laugarren heriotza-kausa izan dira, 404 heriotzarekin (% 6,5). Digestio-sistemaren gaixotasunen ondorioz 303 heriotza izan dira (% 4,9).

Heriotzen motiboak desberdina izaten jarraitzen du, sexuaren arabera; izan ere, gizonen artean, tumoreek gaintitu egin dituzte zirkulazio-sistemako gaixotasunak, eta, emakumeen artean, kausa nagusia zirkulazio-sistemaren gaixotasunak izan dira eta, ondoren, tumoreak.

Heriotzak heriotza-arrazoiaren eta sexuaren arabera (1). 2023/I

	2023/I		2022/IV		Gehikuntza (%)	2022/I		Gehikuntza (%)
	KOP	%	KOP	%		KOP	%	
HERIOTZAK	6.207	100,0	5.930	100,0	4,7	6.439	100,0	-3,6
Heriotza-kausa								
Guztira								
Neoplasiak	1.621	26	1.634	28	-1	1.572	24	3,1
Zirkulazio sistema	1.594	25,7	1.433	24,2	11,2	1.515	23,5	5,2
Arnas sistema	543	8,7	463	7,8	17,3	376	5,8	44,4
Nerbio sistema	404	6,5	401	6,8	0,7	416	6,5	-2,9
Txegoste sistema	303	4,9	285	4,8	6,3	272	4,2	11,4
Gainerako kausak	1.742	28,1	1.714	28,9	1,6	2.288	35,5	-23,9
COVID-19 baieztatuta	74	1,2	200	3,4	-63,0	778	12,1	-90,5
COVID-19 probablea	0	0,0	1	0,0	-100,0	6	0,1	-100,0
Bestelakoak	1.668	26,9	1.513	25,5	10,2	1.504	23,4	10,9
Gizonak								
Neoplasiak	983	32	973	33	1	884	28	11,2
Zirkulazio sistema	728	24,0	668	22,9	9,0	710	22,5	2,5
Arnas sistema	279	9,2	242	8,3	15,3	210	6,6	32,9
Nerbio sistema	158	5,2	172	5,9	-8,1	151	4,8	4,6
Txegoste sistema	159	5,2	155	5,3	2,6	137	4,3	16,1
Gainerako kausak	730	24,0	713	24,4	2,4	1.067	33,8	-31,6
COVID-19 baieztatuta	36	1,2	99	3,4	-63,6	437	13,8	-91,8
COVID-19 probablea	0	0,0	1	0,0	-100,0	3	0,1	-100,0
Bestelakoak	694	22,9	613	21,0	13,2	627	19,8	10,7
Emakumeak								
Neoplasiak	638	20	661	22	-3	688	21	-7,3
Zirkulazio sistema	866	27,3	765	25,4	13,2	805	24,5	7,6
Arnas sistema	264	8,3	221	7,3	19,5	166	5,1	59,0
Nerbio sistema	246	7,8	229	7,6	7,4	265	8,1	-7,2
Txegoste sistema	144	4,5	130	4,3	10,8	135	4,1	6,7
Gainerako kausak	1.012	31,9	1.001	33,3	1,1	1.221	37,2	-17,1
COVID-19 baieztatuta	38	1,2	101	3,4	-62,4	341	10,4	-88,9
COVID-19 probablea	0	0,0	0	0,0	0,0	3	0,1	-100,0
Bestelakoak	974	30,7	900	29,9	8,2	877	26,7	11,1
(1) Hiruhileko honetako datuak behin-behinekoak dira. Aldaketak oraingo hiruhilekoaren aldean dira								

Data 2023ko Irailaren 18a

Iturria: Eustat. Heriotzen Estatistika

Euskadiko AEko hazkunde begetatiboa negatiboa izan da 2023ko lehen hiruhilekoan, behera egin baitu (3.094 pertsona gutxiago). Hiru lurraldeetan galdu da populazioa: Bizkaian, 1.701 pertsona; Gipuzkoan, 1.084, eta, Araban, 309.

COVID-19aren ondorioz 74 heriotza izan dira 2023ko lehen hiruhilekoan

COVID-19ak 74 heriotza eragin ditu, guztira, guztiak COVID-19 ziurtatuaren ondoriozkoak; alegia, % 90,5 jaitsi da kopurua. Gainera, beste 24 heriotzatan COVID-19a ziurtatutako heriotza-kausen artean egon da, baina ez da funtsezko kausa izan.

Euskal AEko heriotzak, lurralde historikoaren, bizilekuko udalerriaren (>40.000 bizt.), sexuaren eta adinaren arabera, COVID-19rekin lotutako heriotza-kausei jarraiki. 2023/I

	Heriotzak guztira	COVID-19 guztira	COVID-19 baieztatuta	COVID-19 probalea
Euskal AE	6.207	74	74	0
Bizileku-lurralde historikoak				
Araba/Álava	800	4	4	0
Bizkaiak	3.281	47	47	0
Gipuzkoa	2.126	23	23	0
Bizileku-udalerria (>40.000 biztanle)				
Barakaldo	259	6	6	0
Basauri	147	0	0	0
Bilbao	1.062	15	15	0
Donostia / San Sebastian	576	3	3	0
Getxo	180	2	2	0
Irun	160	2	2	0
Portugalete	153	2	2	0
Santurtzi	153	0	0	0
Vitoria-Gasteiz	587	2	2	0
Sexua				
Gizon	3.037	36	36	0
Emakumea	3.170	38	38	0
Adina				
40 urtetik beherakoak	52	0	0	0
40 urtetik 59ra	333	1	1	0
60 urtetik 79ra	1.683	16	16	0
80 urte edo gehiago	4.139	57	57	0

Data 2023ko Irailaren 18a


Iturria: Eustat. Heriotzen Estatistika

Lurralde historikoen arabera, zifrarik altuena Bizkaiari dagokio (47), ondoren Gipuzkoari (23) eta, azkenik, Arabari (4). Hiriburuei dagokienez, Bilbo nabarmentzen da, COVID-19aren ondoriozko 15 heriotza izan baititu; ondoren, Donostia, 3 izan baititu, eta, azkenik, Vitoria-Gasteiz, 2rekin. Barakaldo udalerriak kausa horrengatiko 6 heriotza izan ditu.

Emakumeen heriotza-kopuruak (38) gizonena (36) gainditu du. Adinen arabera, berriz, eragin gehien jasan duten taldeak 80 urtetik gorakoena (57) eta 60-79 urte artekoena (16) izan dira.

COVID-19aren ondoriozko heriotza horiek, nagusiki, EAEko ospitaleetan gertatu dira (% 82,4), eta, ondoren, etxeetan (% 9,5) eta egoitza soziosanitarioetan (% 8,1).

Bizilekua Euskal AEn zutenen heriotzak. Hileko datuak



Iturria: Eustat. Heriotzen estatistika

Argibide gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62